

Aretxagazeta

Internet: www.saret.ko.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saret.ko.es

Aretxabaleta · 1999ko irailak 9 · 174. zka.



Oporretan urrutiko lurraldeetan barna

Iturririk iturri: Jon Molina ■ Iritzia: Amagoia Lasagabaster ■ Kirolak: Iban Sastre

horma armairuak

**AZKARATE
AROSZTEGIA**

ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak*

tolesgarriak

**horma armairu
irristagarriak**

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA

**1999-2000
ikasturtea**

 **berbetan**
HIZKUNTZAK

**Matrikula epea:
irailaren 6tik 24ra**

**Frantsesa,
ingelesa eta
alemana**

- Maila guztiak (First Certificate of Cambridge...)
- Adin guztiak.

**Klaseak goizez eta
arratsaldez**

**Bulego ordutegia:
4etatik 7etara**

**Andra Mari auzunea, 8 behea
Tfnoa: 943 79 00 69**




Latza egiten ari zaizu opor ostea?

Hilario Bartolome

(Langilea)

Oporrak gripeak jota igaro ditut, nahiko gaizki egon naiz, baina lanerako itzulera gogorra izan da. Pasa den astelehenen hasi nintzen eta gehien kostatu zaidana goizean goiz altxatu beharra izan da.



M^a Angeles Coronado

(Etxeko andrea)


Bai, gogorra izan da. Benidormen eman ditugu hamabost egun eta oso ondo pasatu dut. Orain, oporrak amaitu direla eta eguneroko martxari heldu behar berriz. Ze erremedio.



Victor Santander

(Ikaslea)

Ikaslea naiz eta oraindik ez naiz hasi. Urria aldera hasiko gara eskolekin eta egia esan ez dut uste gogorregia egingo zaidanik. Izan ere, nahikoa opor izan ditut dagoeneko eta eskolekin haste-gogo apurtxo bat ere badut.



Miren Kortabarría

(Langilea)

Oso gogorra izan da. Gaur bertan hasi naiz lanean eta benetan gogorra egin zait. Batez ere Gas-teizeraino joan behar izatea egin zait astuna, eta horrez aparte alaba txikia utzi beharra. Horrez gain, gainontzekoa ondo eraman dut.



e s k u t i t z a



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Berriz etxean

Oporrak amaitu dira eta hemen gaude berriz ere zuekin, hutsik egin gabe zuon etxeetara Aretxagazeta helarazteko prest.

Badakizue atal hau "eskutitza" irekia dela, guztiok duzue tokia bertan. Beraz, kexarik edota zerbait esatekorik baduzue bidali zuen gutuna aldizkarira.

Aretxagazeta

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Monika Belastegi eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Inaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskalgatia.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609.

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta

Aretxabaletako herria saritu dute Donostiako Antiguon

Aretxabaletako herria saritu zuten abuztu amaiera aldera Donostiako Antiguon auzoan.

Saria, Antiguoko pilota torneoan jaso zuen Aretxabaletak, finalerdietara beste edozein herri baina pilotari gehiago eraman zituelako aipatutako torneoa.

Errasti anaiak eta Ibon Alzola

Atxabaltako pilotariak finalera heldu ez arren, saria merezi izan

zuen Aretxabaletak, eta Angel Bergaretxe, alkatea, izan zen saria jasotzera Antiguon auzora hurbildu zen ordezkaria.

Aipatu bezala, Atxabaltako pilotariak finalera heldu ez arren, final erdietara, ordeza, bai, honela, Unai eta Ibon Errasti laugarren gelditu ziren afizionatuetan eta Aitor Alzola eta Muguruza bergararra hirugarren izan ziren jubeniletan.

Antiguon auzoak Aretxabaletari emandako saria Anjel Bergaretxek jaso zuen beheko argazkian ikus daitekeen bezala. Torneo ostean bazkaria izan zen eta Aretxabaletako Udala gonbidatu zuten bertara.



Antiguon auzoak Aretxabaletari emandako saria Anjel Bergaretxek jaso zuen argazkian ikus daitekeen bezala. Torneo ostean bazkaria izan zen eta Aretxabaletako Udaletxeko ordezkariak gonbidatu zituzten bertara.

Udaletxeko jakinarazpena

Ziklomotor baten jabe diren herritar guztiei jakinarazten zaie, 1999-7-27a baino lehenago ziklomotore bat erosi dutenek matrikulatu egin behar dutela. Horretarako, 2575 pezeta ordaindu behar dira eta agiri hauek aurkeztu Udaletxean:

- Indarrean dagoen NANren fotokopia.
 - Ziklomotorearen ezaugarrien agiria.
 - Matrikulazio inprimakia (gaintzeko dokumentazioa aurkezterakoan emango da).
- Irailaren 9a da agiriak aurkezteko azken eguna.

Unibertsitatera joan- etorria egiteko autobusak

Datorren irailaren 21ean jasoko ditu Pesa autobus zerbitzuak Donostia eta Gasteizen ikasten ari eta bertara joan-etorria autobusez egin nahi duten ikasleentzako ikasle karnetaren eskaerak. Ikasle karneta eskuratzeko eskaerak Kultur Etxean egingo dira aipatu 21ean goizez 9:00etatik 14:00 etara eta arratsaldez 16:00etatik 19:00etara.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 943 79 62 80
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53
ARETXABALETA

MAITE ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

Eratuta dagoeneko Udaleko organuen antolaketa


Eratu da dagoeneko Udaleko Gobernu Batzordea eta baita Batzorde Informatiboetako ordezkariak hautatu ere. Beraz, Udaleko organuen antolaketa

beheko eskeman datorren gisara izango dugu datozen lau urteotan, Euskal Herritarrok eta EAJ/EA koalizioaren eskuetan.

Gobernu Batzordeko kideak



Anjel Bergaretxe
EH



Luis Errasti
EH



Karmelo Azkoitia
EAJ/EA



J.M. Armentia
EAJ/EA



Andoni Miguel
EH

Batzorde Informatiboetako ordezkariak



Sokorro Unanue
EH
Kultura




Xabier Etxebarrieta
EH
Ingurugiroa



Andoni Miguel
EH
Gizarte Ongizatea




Josu Atxaga
EH
Hezkuntza eta
Euskara



Luis Errasti
EH
Hirigintza eta
Zerbitzuak



J.M. Armentia
EAJ-EA
Kiriolak



J.A. Zubizarreta
EAJ-EA
Auzoak



Pablo Txintxurreta
EAJ-EA
Garapen
Ekonomikoa



Iñaki Uribeberria
EAJ-EA
Ogasuna



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Tirri-Tarra fanfarrea izango da San Migeletan

Gainean ditugu dagoeneko San Migelak. Andramaixen zaporea oraindik ere ahoan dugula, irailaren 24tik 26ra bitartean San Migelak izango ditugu eskaintza alai bezain tentagarriarekin.

Eskaintza horien artean eta aurrerapen gisa, Tirri-Tarra fanfarrea izango da San Migeletako lehenengo egunean Herriko plazan gauko 22:30ean. Fanfarre hau 1973. urtean sortu zen Pasai San Pedron eta musikaz gain, umorea eta ikuskizuna eskaintzen ditu.

Fanfarreak eskainiko duen "Tirri-Tarra show" izeneko ikuskizunean, jolasaldia, dibertsioa eta ikuslearen harridura tartekatzen dira. Bertan, hainbat sketch ezberdinez osatutako muntaia azaltzen dute, eta amaieran, "Priscila, basamortuko erregina" film ezaguneko musikan oinarrituz, Drag-Queen munduaren egokitze jatorra egiten dute.

"Priscila, basamortuko erregina" film ezaguneko musikan oinarrituz, Drag-Queen munduaren egokitze jatorra egiten dute argazkian ikusi daitekeen bezala



Honez guztiaz gain, urteroko Artisau Feria ere izango da hilaren 25ean egun osoan zehar eta baita Xuhate Leitzako taldearekin dantzaldia ere Mitarte kalean.

Kirolari lotuz, San Migelek herri kirolak ikusteko aukera eskainiko digute. Hilaren 26an, igandea, eguerdiko 13:00etan Herriko plazan, harrijasotzaile eta aizkolariak

arituko dira. Harrijasotzaileei dago-kienez, Goenatxo, Dani Vicente eta Mikel Saralegi eta Nartxi Saralegi arituko dira. Aizkoraren kasuan, berriz, Itziar Goenaga eta Kristina Saralegi, harrijasotzaileen arrebak azken hauek.

Harrijasotzaile eta aizkolarien erakustaldiaz gain, Saralegi 280 kiloko harria jasotzen saiatuko da.

Herritarrak erromesaldian Arantzazura



Pasa den astelehenean, herritar ugari hurbildu zen Arantzazura erromesaldian urtero legez. Jendea oinez, autobusez zein kotxez joan zen Arantzazuko Ama Birjinari bisita egitera. Oinezkoak goizeko 7:30ean jari ziren Arantzazurako bidean eta 18 bat joan ziren. Autobusez joandakoei dagokienez, hiru izan ziren betetako autobusak. Horrez gain, Udal Korporazioa ere joan zen Arantzazura urtero egin izan duen bezala. Hamairu zinegotzietatik zazpi joan ziren. EHTik Anjel Bergaretxe, alkatea, eta Sokorro Unanue eta EAJ/EAtik J.M.Armentia, J.A. Zubizarreta, Pablo Txintxurreta eta Iñaki Uribetxebarria joan ziren. Udalbatzako kideek, Meza entzun ostean Zelai Zabalen bazkaria egin zuten.



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

RKU
URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96

Haur Dantzarien Egunak 450 haur bilduko ditu 19an

Herriko kaleak dantza eta kolorez josiko dira irailaren 19an Haur Dantzarien Egunean. 450 haur inguru bilduko dira Aretxabaletan aipatu egunean inguruko sei herri-tatik etorriko direnak.

Eskoriatzako Gorosarri taldea, Arrasateko Txikiton eta Lore Gazteak, Bergarako Xamatx, Antzuolako Oiñarin, Oñatikiko Oinatz eta Soralezeko dantza taldeak izango ditugu egun horretan herrian. Herriko ordezkari, Loramendi izango dugu.

Haur guztiak plazan elkartuko dira goizeko 11:00ak aldera. Bertan hamaiketako egin eta ondoren dantza talde guztiak hiru multzotan banatuko dira eta herriko kaleetan zehar arituko dira, Herriko plazan,

Urbaltzeko plazan eta Azoka plazan dantza saio bereziak eskainiz.

Bazkal ordua

Eguerdiko 13:30ean haurrak berri ere plazan elkartuko dira eta etxeetan bazkalteko banaketa egingo da eta herri-tarren partehartzea eskertuko litzateke haurrak etxean hartzeko orduan. Helburu horrekin, datorren astean zehar banatuko diren orritxoak bete beharko dira. Gurea tabernan eta Eroskin ere utziko dira.

Honekin guztiarekin, arratsalde-



450 haur inguru bilduko dira Haur Dantzarien Egunean

ko 17:00etan elkartuko dira berri ere umeak eta alardeari ekingo diote Herriko plazan.

Alardean, herri bakoitzeko dantza taldeak hainbat dantza egiteaz gain, dantza taldeak elkarrekin ere arituko dira.



Joxe Olabe postal lehiaketako irabazle

Joxe Olabe izango da, beste lagun batekin batera eta Aretxagazetaren kontura Baster Aldera afaltzera joango den zorteduna. Postal asko jaso ditugu aurten ere, eta oso toki ezberdinetatik gainera: Pirineotatik, Segoviatik, Laredotik, Parisetik, Oslotik, Tunisiatik, Indiatik, Greziatik, Costa Bravatik... makina bat lekutatik. Originaltasuna ere ez zaie falta izan postaletako batzuei, politak izan dira benetan. Mila esker guztioi eta zorionak Joxe Olaberi.

Lasai

Mirisa Manteco
MASAJISTA

Masaje terapeutikoan
Postura azterketa eta
egokitzean
diplomatus

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 77 04 34

BEIRALAN

KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 ARETXABAETA

IBARRA

ESTANKOA

Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

BEGIO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

Okindegia - Gozategia


Aretxabaleta

Loramendi, 6 · ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 · ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

Jon Molina

Jon, Jon apaiza edo apaiza, solaskidearen hiru aukerak

Gaztea da, 29 urte ditu, eta ekainaren 29an apaiz egin zuten. Ohi den bezala, lehenengo meza bere sorterrian eman zuen, Atxabaltan uztailearen 4an. Orain Alegin dago apaiz eta berarekin izandako hitzordutxoan hainbat gauza kontatu dizki-gu bi hilabeteotako bizipe-nak barne.



Jon Molinak Alegiko herrian dihardu apaiz

- Elizarekin ezkontzea ez ei da oso arrunta gaur egunean.

-Aipatu duzun elizarekin ezkontze hori maiz erabiltzen da baina ez da zuzena, apaizok ez gara ezta elizarekin ere ezkontzen. Kontuak kontu, ez da ez arrunta. Norberak ere sorpresa puntua hartzen du bere burua horrelako zereginetan ikusten duenean. Gauzak, baina, ez dira bapatean sortzen. Ni beti elizako kristau taldeetan aritu izan naiz, beste edozein aritu daitekeen bezala. Hala ere, hortxe, kristau izate hori sakontzeko nahia sortu zen nigan, aberasgarria izango zelako.

Sakontze bide horretan, bide asko jarraitu daitezke, eta nik apaiz bidea aukeratu nuen. Honela, Donostiako Seminarioa joan nintzen, zalantza batzuekin oraindik, ez bainekien zer aurkituko nuen bertan, baina oso gustora egon nintzen eta zalantzak uxatu egin nituen.

- Zein da Seminarioan sartzetik apaiztu arteko prozesua?

- Seminarioan sartu eta apaiztu arte sei urte igarotzen dira. Bost urteko ikasketak egin behar dira eta seigarrenean, diakonotza urtea, praktikak egiten dira parrokia batean biziz. Bost urte horietan, teologia eta filosofia ikasten dira batik bat, eta horren gehigarri izan daitezkeen psikologia, soziologia, ekonomia...

- Apaiz ekainaren 29an egin zintuzten, eta lehenengo meza Atxabaltan uztailearen 4an eman zenuen. Nola joan zen lehenengo meza?

- Gauza horiek gehiegizkoak izaten dira. Batetik momentu horretara heltzeko, asko pasatu behar izan du: zailtasunak, zalantza uneak... Apaiztera iristeko momentua borrokatutako zerbait da. Horregatik, heltzen zarenean zure buruarekin ondo zaude heldu zarelako jarri

“Familia eta lagunentzat Jon, betiko laguna jarraitzen dut izaten, apaiz izatearen estereotipoetatik at”

duzun helmugara.

Horrez gain, jendearengan ere badu eraginik eta niregan izandakoa baino gehiago esango nuke.

- Nola ikusten dute zure adineko abadea bai pertsona nagusiek bai gazteek?

- Bi baino hiru talde bereiziko nituzke. Apaiz izan aurretik ezagutzen nautenentzat, familia eta eskolako lagunentzat, kasu, Jon naiz. Seminarioan nagoenetik ezagutu nautenentzat Jon apaiza naiz. Lagunak dira baina apaiz zarela ere kontuan hartzen dute. Eta azkenik beste batzuentzat soilik apaiza naiz, ez dute Jon ikusten, eta apaiz izatearen estereotipo horien barruan kokatzen naute.

- Zein promesa egiten duzue apaiztean?

- Fraileek kastitate botoa duten bezala, guk ez ezkontzekoa dugu. Eguneroko bizitzan gauza bera dira, ezkontzatik kanpo harreman sexualik ezin izan daitezkeela suposatzen delako. Baina berez ez da berdina, apaiz izateko ez dagoelako ezkongabea izan beharrik. Bestetik, Gotzaiari obedientzia promesa ere badugu eta azkenik elizaren otoitz ofiziala egitekoa.

- Zein da betetzeko zailena?

- Guztiak lotuta daude. Ez dut ukatzen zelibatoan bizitzea zaila ez denik. Bere zailtasunak ditu, baina ez harreman sexualik ezin izan daitekeelako. Hori alderdi bat da eta ez dut uste garrantzitsuena denik. Gehiago da bakar-dadeagatik: etxera joan eta inor ez duzulako zain eta badakizulako inoiz ez duzula seme-alabarik izango. Hau bizitzea ez da erraza, baina otoitza behar den bezala egitea ere ez. Otoitz liburua irakurtzarekin soilik ez delako ganorazko otoitzik egiten. Eta obedientziarekin gauza bera gertatzen da; Gotzaiarekin ados zaudenean haren esana betetzea erraza da, baina zure estilokoa ez den Gotzain bat bada, haren esana betetzea ez da horren erraza.

Hiruretako bat bera ere ondo betetzea ez da erraza. Baina jendea gehien zelibatoaren promesan fijaszen da. Apaiz zaharrek diotenez, azkenean betetzeko zailena, obedientziaren promesa da.

- Eguneroko jardunean zer nolako malgutasuna eskaintzen dute elizako arauak?

- Egia da elizak dituen lege batzuk oso zorrotzak direla, baina zail ikusten dut apaiz baten askatasuna edukitzea beste edozein zeregin duen pertsona batek bere jardunean.

- Zer moduz Alegin?

- Jendea toki guztietan bezalakoa da. Oso harrera ona izan dugu bai nik bai nirekin joan den beste apaizak ere.

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE

HIZKUNTZEN MUNDUA



**Matrikula
Epea Zabalik**

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.

Informa zaitez orain !



AHIZKE S. COOP
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 - 712055 Fax: 943 - 712181
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http: www.cim-idiomas.com
Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
Tel.: 943 - 716000

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 - 150155 Fax: 945 - 150156
E-mail: gasteizbaiby@cim-idiomas.com
Zubieta, 26 - 20007 SAN SEBASTIAN (GIPUZKOA)
Tel.: 639 719858
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com
http: www.cim-idiomas.com





“Urtean, zuok langileok bezala, hilabete inguruko oporrak hartzen ditugu -hori bai, ikasleon bizitza pobrea dela eta hilabete hori diru extra bat emango digun lantxoren bat egiten pasatzen dugu-.”

Irail beltza

Ez dut, ez, denbora askorik eduki iritzi artikulu hau burutzeko. Gainera, nire inspirazioa oraindik oporretan dago antza; beraz, guztiz murgildurik nagoen gai bati buruz arituko naiz ondorengo lerrootan.

Ziur nago ez naizela ni bakarria izango iraileko azterketekin gora eta behera dabilena. Guk ikasleok, langileak bezala, egina daukagu “ikas-egutegia”. Irailean azterketa finalak, urrian ikasketen hasiera, Gabonetan lehenengo aurrebaluaketak, otsailean lehenengo lauhilabetezko azterketa finalak eta Aste Santuan berriz ere ikasten hasi behar ekaineko eta uztaileko azterketetarako. Urtean, zuok langileok bezala, hilabete inguruko oporrak hartzen ditugu -hori bai, ikasleon bizitza pobrea dela eta hilabete hori diru estra bat emango digun lantxoren bat egiten pasatzen dugu-.

Iraileko azterketak aurten suspenditutako eta burukomin

izugarriak ematen dituen ikasgai hori gaintzeko azken aukera dira. Presioa ikaragarria da eta gainera sekula ikasi ez dugun batzuentzat, urte osoa potrojorran ibiltzeagatik pasa behar izaten ditugu irailean une larri hauek. Lagun batek orain dela gutxi ikasleon bizitza ala langileena nahiago genuen galdetu zigun. Irailekoa azterketekin ari gare-nok aukeratu genuen, baina egia esan hilabete madarikatu honek sortarazten digun lo ezak, kirioek eta ezinegonak bultzatutako erabakia izan zen. Bestela uste dut inor gutxik aldatuko lukeela ikasle bizitza zortzi orduko lan batengatik.

Lasaitasunez betetako oporren ostean, bai ikastea, baita lanean hastea ere gogorra dela jakinda, animo guztioi irail beltz honetan.

Amagoia Lasagabaster

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

Izozkitekiki-Gozotegia
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 943 79 93 58
ARETXABALETA

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Oporretan aukeran leku exotikoetara

Jende askok oporrak bidaiatzeko aprobeztatu ohi ditu. Norberak bere izakera eta zaletasunen arabera bidaia bat edo beste aukeratzen du. Guk hainbat atxabaltarrek abuztu honetan egindako bost bidaia oso ezberdin dakarkizuegu orrialdeotara. Lehenengoa Iñigo Trojaolak, Zigor Lasagabasterrek, Aitor

Garrok eta Alberto Roldanek Islandiara egindakoa. Bigarrena, Oier Etxebarria eta Iñigo Gonzalezek Grezia eta Turkiara egindakoa. Hirugarrena, Aitor Bengoak Venezuelara egindakoa eta azkena Alberto Etxeberriak Iranera egin duena. Bidaiari bakoitzak, aukeratutako tokian egin eta bizitakoa kontatu digu.

ISLANDIA

Abuztuaren 9an atera ziren Iñigo Trojaola, Zigor Lasagabaster, Aitor Garro eta Alberto Roldan Islandia aldera. Trenez Madrileraino joan eta bertan Islandiara eramango zituen hegaldia hartu zuten -hamar orduko atzerapenarekin izan bazen ere-.

Iparraldeko herrialde hau ezagutzeari Alberto Roldani otu zitzaion. Honek, gainontzeko hiru bidaiakideei esan, eta hamabost egunetan zehar Islandia irla goitik behera miatu dute.

Hegaldiaren atzerapena dela medio, gauez, oso berandu heldu ziren Islandiara lau lagunak eta lehenengo gau hau aireportuan eman zuten. Hurrengo goizean, kotxea alokatu eta bidea egiteari ekin zioten.

Reikiaviketik atera, eta irlari itzulia eman behar ziotela argi zeukaten, hiriburua bera azkenerako utziz. Horrez aparte, non geratuko ziren eta toki bakoitzean zenbat denbora emango zuten zehaztu gabe zeukaten. Inguruak eta egoerak berak lagunduko zien erabaki hori hartzen.

Paisaia eta naturarekiko harreman estua dira Islandiaren eskaintzarik gozagarrienak atxabaltar hauen ustetan; herrialde hotza da, ez dago zuhaitzik, jende gutxi kale-



Lau paisaia mota oso ezberdinez eratutako lurraldea da Islandia Atxabaltako bidaiarientzat

an, baina itsasoak sortutako itsaslabar eta fiordoek, glaziarrek, lur bolkanikodun hedadurek eta belar oso mozdun lautada zabalek, "lau paisaia mota oso ezberdin baina espektakularrez hornitzen dute Islandia" beraien hitzetan.

Lujorik gabeko egonaldia

Lo egiteari dagokionez, agroturismo tankerako granjak, albergeak eta kanpinak daude, hotelez gain, oso garestiak hala ere. Inongo lujorik gabe ibili direla esan dute, izan duten lujo bakarra, gau batzuetan albergean lo egitea izan da, ia 4.000 pezeta-ren truk, eta betiere etxetik eramandako lo zakuan. Osterantzean, ber-

tako izarak erabiliz, prezioa bikoiztu egiten zen. Janaria ere hemengoarekin alderatuz ia hiru aldiz garestiagoa da. Horregatik, gosaria eta bazkaria supermerkatuan erositakoarekin egiten zuten eta otordu beroa afaritan, lo egiten zuten albergean.

Harritu dituen gauzen artean, Europa kontsideratzen den arren, gainontzeko herrialdeekin alderatuz duen ezberdintasuna aipatu dute, baita jendearen izaera oso berezia dela ere, -neguan dituzten bi argi orduengatik akaso- Horrez gain, natura horren gertutik sentitzeko dagoen aukerak txundituta utzi ditu, eta beste horrenbeste pasaiari darion lasaitasunak.

GREZIA ETA TURKIA

Oier Etxebarria eta Iñigo Gonzalezen opor hauetarako asmoa trenea hartu eta urrutiko para-jeak ezagutzea zen. Honela, Turkia nahikoa urruti dagoela eta exotikotasuna falta ez zaionez, Interrailerako txartela erosi eta harako bidean jarri ziren, bidaian zehar geldialditxo batzuk egiteko asmoarekin, Italia eta Greziako herrialdeetan batez ere.

Lehenengo geldialdia Milanen izan zen. Trenak sei ordu eman behar zituela bertan eta denbora honetan ikusi ahal izan zutena ikusi ostean berriz ere trenera igo eta Brindisira ino joan ziren. Ferryan 17 orduko bidaia egin ostean, Greziara iritsi eta Peloponesora abiatu ziren. Peloponesoari itzulia egin eta gero, Atenasera abiatu ziren eta Acropolisa eta beste hainbat aztarna ikusi ostean Istanbulerako bidetara ekin zioten. Bidean, hala ere, Meteoran gelditu ziren leku oso berezia baita Oierren hitzetan.



Greziako irlak oso politak iruditu zaizkie, Santorini batez ere hare gorri, zuri eta beltzun hondartzaduna

Istanbulen zeudela, bigarren gauetan hotelean lasai lo, goizaldeko 3:30ak aldera, mugimendu bortitz batek esnarazi zituen bai Oier eta Iñigo, baita hoteleko gelan beraiekin zeuden gainontzeak ere. Esnatu eta minutu erdira, hoteleko zerbitzari batek hoteletik ateratzeko esan eta orduan ohartu ziren nabaritutako astindua lurrikara batek sortutakoa izan zela. Hoteletik atera eta gaua parke batean eman zuten. Oierrek esandakoaren

arabera, Istanbulen lurrikararen eragina ez zen oso nabaria izan eta beraiek ere albistegiak ikusi arte ez zuten jakin izan zenbaterainokoa izan zen hondamena. Honekin guztiarekin eta Turkian barna ezin zuten egin, Greziara itzultzea erabaki zuten bertako irlak ikusteko asmoz. Paros eta Santorini ikusi zituzten etxera itzuli aurretik, eta aitortutakoaren arabera, Istanbulera itzultzeko gogoz daude, ezin izan baitzuten hiriaz nahi beste gozatu.

Leku asko ezagutuko lituzke Aitor Bengoak, baina momentuz ingelesa ez duela oso ondo menperatzen eta hizkuntza arazo izango ez den herrialdeak aukeratzeko ditu. Honela, aurreneko Venezuelara joan da, hizkuntza ezagutzeaz gain Hegoamerikako herrialde ezezagunenetariko delako bere esanetan.

Ez da bidaia guztiz arrunta izan Aitorrek egin duena; izan ere, bidaia apur

bat alternatiboak gustokoago dituela aitortu du. Abuztuaren 11n aterata eta 31n itzuli zen. Tarte honetan, Venezuelako hegoaldean aste beteko trekking-a egin zuen, beste aste bete Amazoniaren iparraldean eman du eta azkeneko hiruzpalau egunak Karibearen eguzkitan.


Txangoa agentzia batek antolatua zen. Honela, hamasei pertsonako taldeak elkarrekin egin du bidaia bera, katalanak, madrildarrak eta euskaldunak tartean zirela.

Lehenengo asteko aipatu trekkingean, tepui bat igo zuten. Tepuiak, Aitorrek azaldu bezala, formazio geologiko oso bereziak dira, eta Venezuelan baino ez daude. Sabana batean sortutako mendiak dira eta tontorrean hedadura handiko lautada izaten dute. Eurak igotako tepuiak 72 km karratu zituen tontorrean. Egunero ordu pare batez euria lagun izan zutela gehitu du Aitorrek eta baita eltxoen ziztada mordo ere.

Trekking-a amaitu ostean, abionetaz Ciudad Bolivarrera abiatu ziren, eta bertan bi egun eman zituzten. Ostean, Amazonas oihanera hurbildu ziren, eta kanoetan Caura ibaian gora eginda Playon izeneko ur gezako hondartzara heldu ziren. Errekan zehar egindako ibilaldian animalia asko ikusteko aukera izan zutela esan du Aitorrek eta pirainak egon arren bainatu egin zirela.

Azkenik, eta etxera deskantsatuta itzultzeko, kostaldera abiatu ziren eta eguzkitan eman azken hiru egunak.

VENEZUELA



Aspaldidanik
zuen Josu

INDIA

Urkiak Indira joateko

gogo. Honela, Indiako herrialdea ezagutzeko asmoz, uztailearen 29an hegazkinean sartu eta bideari ekin zion bere lagunarekin batera.

Delhira heldu eta hegazkinetik jaistean izan zuten lehenengo sentzazioa beroarena izan zen, bero oso hezearena. Eta dagoen trafikoa izugarriak ez zituen gutxiago harritu, Josuk kaotikoa dela esan du.


Delhitik Rajashtanera joan ziren. Rajashtanek lau hiriburu ditu, bakoitza kolore batekoa: Jaisalmer, kolore laruduna, Jodhpur, urdina, Udaipur, zuria eta Jaipur, gorria. Hauek laurak bisitatu zituzten eta Agrara joan ziren. Agran Taj Mahala ikusi zuten eta Josuk esandakoaren arabera zoragarria da, eta oso handia. Eurak izandako eguna, ostirala zen, eta ostiraletan natiboentzako Taj Mahalera sartzeko egun libreza izaten denez, jendez josita zegoen. Hala

ere, eta eraikinaren handitasuna dela medio, lasai asko egon zitekeela gaineratu du.

Agratik Benaresera abiatu ziren. Benaresen Ganges ibai famatua dago. Ibai hau sakratua da induentzat, eta jendea hil ostean, Ganges ondoan erre eta errautsak bertara botatzen dituztela kontatu du Josuk, eta kremazioen bat edo beste ere ikusi dutela.

Horrez gain, Ganges inguruetara jende asko hiltzera joaten dela ere esan du, eta hil zorian daudenak hartzeko prestatutako etxeak daudela.

Bidaiko azken egunak, Nepalen eman dituzte, eta bi herrialdeen arteko



Taj Mahala izugarri ederra da

ezberdintasuna nabaria dela esan du Josuk. India zoramena da eta Nepal askoz lasaiagoa.

Alberto Etxeberria Iranen izan da Madrilgo bi lagunekin batera. Abuztuaren 4ean aterata, Teheranera heldu ziren eta bertan bi egun eman zituzten. Izan ere, Iranen ezin da gonbidatua izan gabe sartu, eta bidaia organizatu batean joanez gero gonbidapen arazorik ez dagoen bezala, Alberto eta bere lagunak beraien kabuz joan izenez Teherango hotelean bi egun eman behar izan zituzten. Teheranez gain, Mashad, Tabas, Kerman, Bam, Minab, Shiraz, Ispaham eta beste hainbat toki ikusi dituzte, probintzia ezberdinetan zeharko ibilbidea eginez Irango herrialdeari ia bira emanda.

Irango biztanleak oso lasaiak direla aipatu du Albertok, eta bertan emandako hilabeteen ez dutela inongo arazorik izan. Hala ere, oso zorrotzak dira Coranaren esanak jarraitzeko orduan eta turistak ere erlijio honen esanetako asko jarraitu behar izaten ditu, janzkera aldetik eta emakumeekiko harremanetan kasu.

Emakumeekiko harremanei dago-

kionez, bi sexuen arteko banaketa izugarria dela esan du Albertok: autobus ezberdinetan joaten dira, hondartzan banatuta jarri behar izaten dira eta hoteleko igerilekuan ere gizonak goizez eta emakumeak iluntze aldera egoten dira.

Gauza hauek guztiak turistek ere bete behar dituzte. Honela, Albertorekin joandako bidaiakideetako bat emakumea zenez, lasai, hiru lagunak

elkarrekin hondartzan egoteko aukerarik ez izatea da faltan bota duen gauza bakarra. Horrez gain, beraiekin joandako neskak, iraniarra balitz bezala, goitik behera tapatuta joan behar izan du, osterantzean poliziak atxilotzeko arriskua baitzuen.

Honekin guztiarekin, jendea oso jatorra dela gehitu du Albertok, eta bidaiaz gain ez dela bertako egonaldia garestia.

Hauxe da emakumezkoek normalean erabiltzen duten jantzia, gorputz osoa estalia dutela

IRAN



“Kirola euskaraz” programa Deba arroan zentratuko da aurten


1993an Deba arroko Euskara eta Kirol zerbitzuek sortutako “kirola euskaraz” programak erronka berri bati aurre egingo dio ikasturte honetan. Orain arte Euskal Autonomi Erkidegora begirana egin badu ere oraingo honetan Deba arroan zentratuko da.

Bi ikastaro

Ikasturte honetarako eskola kiroltako monitorea eta klubetako entrenatzaileei zuzendutako bi ikastaro mota eskainiko ditu. Alde batetik, ikastaro orokorrak daude eta urtean hiru ikastaro eskainiko

dira. Edozein kiroltara dedikatzen diren teknikariei zuzenduta egongo dira eta 12 ordu ingurukoa izango da bakoitza. Bestetik, pilota, eskubaloia eta futboleko saioei dago kienez, urtean bi orduko sei saio eskainiko dira kirol bakoitzeko. Saio hauen arduradunak zehaztu gabe badaude ere, goi mailako kirolari eta entrenatzaileak izango dira.

Ikastaroetan parte hartzeagatik ez da matrikularik ordaindu behar eta hainbat kasutan dirulaguntzak ere egon daitezke, urte osoko programan parte hartzeagatik.



Pilota, eskubaloia eta futboleko ikastaroak eskainiko dira beste batzuen artean

UDAREN garaipena kanpoan

UDAKO preferenteak ezin hobeto hasi du futbol denboraldia joan den domekan jokatutako lehen partiduan Intxaurrendoren aurka 0-2 nagusitu ondoren. Iñaki Cegiagaren mutilek ondo jokatu zuten eta Jonan eta Richard jokalarien golei esker baita irabazi ere. Datorren domekan Oiarzun izango dute aurrez-aurre Ibañan arratsaldeko 5etan.

Bestalde, lehen erregionalak irailaren 26an izango du denboraldiko lehen partidua Ilintxaren aurka. Liga Vascako jubentek, berriz, Gasteizeko Marianisten aurka neurtuko dituzte indarrak datorren domekan.

Futbol kontuekin jarraituz, bada bestelako berri pozgarririk ere, izan ere, Roberto Alonso UDAKO jokalaria arrasatearra Errealeko kadeetara joan da.

Josu Izagirre Euskadi triatloian

Joan den domekan Akitaniako distantzia luzeko triatloian hartu zuen parte Josu Izagirrek. Bertan 4 km igerian, 126 bizikletan eta 30 km egin behar izan zituen korrika. Aipatutako hau 9 ordu eta 30 minututan egin zuen.

Ez da gero txantxetako proba, eta gainera, egin zuen beroa kontuan hartuta are gutxiago.

Kirola euskaraz programa

Irabazleak behar ditugu!

**EUSKARAZ
DENOK
IRABAZTEN
DUGU**



Deba arroko Udaletako Euskara eta Kirol zerbitzuak

Iban Sastre

Profesionaletara salto egin duen txirrindularia

Saunier Duval afizionatu mailako taldean aritu da aurtan Iban Sastre txirrindulari atxabaltarra. Denboraldi polita egin du, karrera batzuk irabazteaz gain, itzuli bat edo beste irabazteko aukera ere izan du baina zortea ez du oso lagun izan.

Datorren denboraldian Festina taldean arituko da txirrindulari hau. Profesionaletara salto egin ondoren, ilusio eta gogo haundiarekin dago 21 urteko atxabaltarra.

• Nola joan da aurtengo denboraldia?

Hasiera ez zen hain ona izan baina gero, hobeto aritu naiz eta hiru karrera irabazi ditut: bi kronoeskalada eta etapa erregina Nafarroako itzulian. Dena dela, zortea ez dut oso lagun izan. Pare bat itzulitan lidergoan joan ondoren, batean trena pasatu behar zelako eta bestean pintxazo bat izan nuelako, denbora asko galdu nuen, eta irabazle izateko aukera guztiak galdu nituen. Orain, denboraldi bukaera dagoeneko, taldekideei laguntzen ari naiz gehienbat.

• Zenbat urte egin dituzu afizionatuetan?


Lau urte. Lehenengo ATE eta BORNen aritu nintzen bi urtez, gero Iberdrolan eta Saunier Duvalen azken urte honetan.

• Hurrengo lasterketa noiz?

Orain Salamankako itzulia daukat aurrez-aurre. Sei itzuli dira, lau etapa nahiko lauak eta gero mendia. Nire lana taldekideei laguntzea izango da bereziki, arestian aipatu dudak bezala.

• Espero zenuen profesionaletara igotzea?

Festinarekin lehen harremanak



“Lehenengo urtea aldaketa eta kategori berrira egokitzeko behar izango dut”

gabonetan hasi ziren. Calpen kontzentrazio batean egon nintzen Festinako taldekideekin. Bertan Juan Fernández zuzendariak esan zidan denboraldi ona eginez gero, igotzeko aukera izango nuela eta azkenenean lortu dut pasatzea.

• Nola ikusten duzu saltoa?

Gogorra izango da. Lehenengo urtea aldaketara eta kategori berrira egokitzeko behar izango dut. Taldekideei laguntza eskainiko diet hastapen honetan. Horrez gain, arlo ekonomikoa begiratuta ere, aldaketa haundia izango da niretzat, irabaziko dudak diru kopurua dexente

handiagoa izango da. Kontuan izan, profesional batek gutxienez bi milioi eta erdi irabazten dituela urtean.

• Zure eguneroko bizitzari zein aldaketa suposatuko dio?

Maila askoz gogorragoa izateaz gain, denboraldi ona egiten badut, Festina nazioarte mailan aritzen den taldea dela kontuan izanda, kanpoan asko jardungo dut.

• Denboraldia amaitzear dago, noiz hartuko dituzu oporrak?

Oraintsu hiru egun izan ditut deskantsatzeko. Ez dut bizikletarik ikutu. Dena dela, hiru aste barru hartuko ditut oporrak eta eguna noiz helduko desiratzen nago. Denboraldi

amaiera da eta oso nekatuta nago. Orain deskantsatu eta juerga batzuk botako ditut, faltan botatzen ditut eta. Dena den, kirola egiten jarraituko dut, mendian ibili, gimnasia joan, bizikletan... baina lasaiago.

• Gogorra da txirrindulari baten bizitza?

Bai, sakrifizio haundia eskatzen du baina nik uste dut satisfazioa ere ematen duela eta biak orekan badaude gustora eta ilusioz ibil daiteke. Hori da garrantzitsuena, zure gustoko lana egin eta gainera bertatik bizi ahal izatea. Lan ona eginez gero, gainera, soldata majoa irabaz daiteke.

• Nolakoa da zure eguneroko bizitza?

Normalean goizetan bi-hiru ordu entrenatzen dut, entrenatzaileak jartzen digu eginbeharrekoa. Beste egun batzuetan, aldiz, sei ordu ere ematen ditut bizikleta gainean. Hala ere, beti izaten dut denbora lagunekin izateko.



I N S T I T U T U A

FORMAKUNTZA IKASTAROAK - 99 **(Iraila - Abendua)**

IKASTAROAK	ORDUAK	DATAK	ORDUTEGIA
DISEINUA (CAD)			
AUTOCAD 14 1. Maila	40	13/09/99-28/09/99	16:00-20:00
AUTOCAD 14 2. Maila	40	04/10/99-21/10/99	16:00-20:00
AUTOCAD 14 3 D	40	25/10/99-10/11/99	16:00-20:00
Planoen interpretazioa	30	15/11/99-02/12/99	18:00-20:00
FABRIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK			
Hiru dimentsiotako metrologia 1. Maila	20	20/09/99-30/09/99	18:30-21:00
Hiru dimentsiotako metrologia 2. Maila	20	18/10/99-28/10/99	18:30-21:00
Soldadura 1. Maila	50	06/09/99-14/10/99	19:00-21:00
Soldadura 2. Maila	50	20/10/99-03/12/99	19:00-21:00
Zenbakizko kontrola C.N.C Tornoan	40	13/09/99-05/10/99	17:30-20:30
Zenbakizko kontrola C.N.C Fresagailuan	40	13/10/99-09/11/99	17:30-20:30
INFORMATIKA eta TEKNOLOGIA BERRIAK			
WORD 97 1. Maila	30	13/09/99-30/09/99	18:00-20:30
ACCESS 97 1. Maila	30	04/10/99-26/10/99	18:00-20:30
EXCEL 97 1. Maila	30	28/10/99-18/11/99	18:00-20:30
OFIMATIKA	40	15/11/99-16/12/99	18:00-20:30
INTERNET/INTRANET	30	15/11/99-02/12/99	18:00-20:30

NOTA.- Ikastaro guztiak astelehenetik ostegunera izango dira.

ARETXABALETA: Etxebarri auzoa z/g
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 79 00



F Guk ere gaztetan futbolean egiten genuen

utbol zaleak aspaldinadik daude geure herrian. Goikaldeko argazkia, 1947-48 denboraldikoa da eta bertan pozik asko erakusten dute ekipokoek irabazitako saria. Izan ere, Atxabalta eta Eskoriatzako mutikoen arteko txapelketan irabazle suertatu zen argazkiko taldea UDAn fitxatu ostean.

Goiko lerroa eta ezkerretik eskumara: **Fernando Zubillaga, Tomas Axpe, Jose Cruz Etxebarria** eta **Alvaro Zubillaga**.

Beheko lerroan: **Pablo Garcia Etxabe, "Porrotxo", Ramon Altube** eta **Eduardo Urkia (Txikuri)**.

Argazkia eta informazioa: Alvaro Zubillaga

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 943 79 02 24
ARETXABALETA

Etxabe *harategia*

Durana 4
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57



LANA


- ◆ **Zerbitzari** eskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86
- ◆ **Neska prest**, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 17 42.
- ◆ **Zerbitzaria** behar da. Tfnoa: 945 44 50 86.
- ◆ **Neska prest** etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 17 24.
- ◆ **Emakume** eskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 943 79 24 01, gauzez.

Lan deialdi publikoak

- ◆ **Arrasaten bi udaltzain lanpostu**. Aurkezteko epea: BOEn argitaratzeko zain. Oinarriak; GAO, 99/6/22
- ◆ **Ansoainen lau udaltzain lanpostu**. Aurkezteko epea: 99/7/28. Oinarriak: NAO, 99/6/28
- ◆ **Nafarroako Foru Komunitatean informatikako erdi mailako teknikaria**. Aurkezteko epea: 99/7/23.

Langaiko lan eskaintza

- ◆ **Harakina**. Orereta. Erref. 21593/1
- ◆ **Fabrikazio burua**. Markina-Ondarroa. Erref. 22006/2
- ◆ **10 Analista programatzaile**. Bartzelona. Erref. 20789/2
- ◆ **Muntatzailea**. Erandio. Erref. 21566/3



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.



DENETIK

- ◆ **LOGSE 2**. mailako neska bati gaztelera-klaseak emateko pertsona bat behar da. Tfnoa: 943 79 71 32.
- ◆ Ingeles eta euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. 943 79 06 86.
- ◆ Gela bat hartu nahi dut alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 670 05 47 63.
- ◆ Udan klase partikularrak ematen dira 2. ESOrate. 943 79 25 62 Arantzazugatigaldetu.
- ◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 714915, 21:00etatik aurrera.
- ◆ San Migel merenderoa alokatzen da Apotzagan. Tfnoa: 943 71 49 96
- ◆ Datorren ikasturtean arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79 00 69, 15:00etatik 18:00etara
- ◆ Leioan pisua osatzeko 2 pertsona behar dira. Tfnoa: 943 79 30 61, Nerea.

- ◆ Flauta eta bibolinjolea behar dira talde batean jotzeko. Tfnoa: 943 79 95 76 (Esteban).
- ◆ Laredon pisu bat alokatzen da irailean. Tfnoa: 943 79 31 47
- ◆ Telefono mugikorra galdu zen hilaren 14an herriko plaza-tik Portasolerako bidean. Norbaitek aurkitu badu 943 79 81 78 telefonora deitu.
- ◆ Pastor Aleman txakurkumeak salgai. Pedigriarekin. Tfnoa: 943 85 32 44 edota 696057346.



ETXE BIZITZA

- ◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 77 12 70.
- ◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.
- ◆ 57 m²ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.
- ◆ Pisu jantzia alokatu nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 05 99 edota 629918135 astegunetan (Donato).
- ◆ Atiko jantzi eta handia alokagai Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 04 86.

PIEZOSUNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
 Laborantza tresnak
 Ongarriak- Haziak
 Mitarte, 7 behea
 ☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta txarkuterian
 espezialitatea
Angelines
AUTOZERBITZUA
 Mitarte, 16 • 943 79 61 42

CONSUM EROSKI
*Orain arrandegi
 eta okindegi, zatoz!*
 Mitarte kalea z/g 943 79 92 11
 ARETXABALETA

Hemen gaude ta poztutzen naiz



Ai ama, berriz ere lanean. Oporrak amaitu direla eta eguneroko martxari ekin behar. Zer erremedio! Egia esan dagoeneko hamabost egun daramatzat lanean eta oporrak izan ditudanik ere ez dut ia gogoratzen. Pentsatzen jarrita, hala ere, ondo pasatu dudarik ezin ukatu. Ez naiz, ez, beste zortedun batzuk bezala India, Islandia edota Venezuelara joan, baina nik ere egin dut nire eskapatatxo eta ezingo naiz kexatu.

Kontuak kontu, herrian ere nabari da gehienok betikoari lotu gatzaiakiola eta egia aitortu behar badut horrek poztu egiten nau: betiko jendea betiko tokietan betiko gauzak egiten... Ez al da polita?

Bien, bien, ba al dakizue **Mikel Etxabe** jokalaria Sansetik 2. B mailako Real Unionera joan dela? Lagun batek esan zidan niri pasa den astean, eta

Iruren egingo omen du datorren denboraldia.

Jose Javier Barkero, herriko beste futbolari hau ere fin dabil Errealean. Orain ez asko Milanen jokatutako partidu batean titular izan zen.


Roberto Alonsok, UDAn jokatzen duen jokalaria arrasatearrarentzako ere egin dugu tartetxoa lerrootan. Izan ere, Errealeko kadeteetara joan zaigu.

Gure herriak kirolari asko eta onak eman dituela ezin ukatu. Kirol mota ezberdinak praktikatzen dituztenak gainera, **Josu Izagirre** bezala. Josuk pasa den igandean Donibane Lohitzuneko triatlon frogan hartu zuen parte. Akitaniako distantzia luzeko proba da berau eta honako honetan oinarritzen da: 4 km igerian, 126 km bizikletaz eta 30 korrika. Ez da, ez, erraza froga hau. 170 lagunek hartu zuten parte eta 87. bukatu zuen Josuk. eta 9 ordu eta 30 minutu behar izan zituen. Hilabete honetan zehar Barakaldoko eta Zumaiakoa ere egingo ditu.

Kirola alde batera utzita, langile berria dugu Kultur Etxean. **Rosa del Aguila** da berau, eskulan ikastaroak eman izan dituen bera, eta Inmari laguntzen hasi da dagoeneko.

Eta azkenik, pasa den astelehenean egindako Arantzazurako erromesaldia aipatu gabe ezin utzi. Hiru autobus bete ziren eta oinez ere 18 bat lagunek egin zuten joan-etorria. Udal korporaziotik ere zazpi lagun joan ziren, eta mezaren ostean bapo bazkaldu zuten Zelai Zabal jatetxean.

Liburutegiko txokoa



Un mes con Montalbano

Egilea, Andrea Camilleri

Emecé, 1999

Montalbano Siziliako herri imaginario bateko komisarioa da eta bere istorioek arrakasta handia izan dute Italian; jadanik bere bi liburu argitaratu dira gazteleraz, "El perro de Terracota" da bestea.

Oraingoan polizia berezi honen hogeita hamar kasu bildu ditu Camillerik liburu berean, era desberdinetako delituak aurkeztuz: mafiaren kontuak, pasiozko krimenak, lapurretak eta abar luze bat. Camilleriren estiloa ironikoa da eta bere pertsonaiak lan egiteko duen modua ere nahikoa berezia dela esan daiteke.

Hau duzu, beraz, komisario bitxi hau ezagutzeko aukera paregabea, ziur bukatu orduko bere abentura berrien egarriz egongo zarela.

Joseba Lopez de Armentia

iraila

10,11,12

**ANDRAMAIXAK
ARIENTZAN**

Ostiralean arratsaldeko 18:00etan, auzoko gazteak Etxebarrin elkar-tuko dira tantai bila joateko. Ondoren, 20:45ean, auzokideen artean **Martin Kabarrixa zintzilikatu** eta **tantaia jasoko** dute bere kantua gogoratu. Jarraian **auzo afaria** izango da eta "Arientzako *Felix Ilemoztegia* 5. Kartel lehiaketako sariak banatuko dira. Banaketaren ostean, **dantzaldia** izango da "Iñigorekin".

Larunbatean, arratsaldeko 18:30ean, **jolasak** izango dira; mailuz untzak sartzea eta kanpai errepika emanaldia Josejuakineneko anaiekin 19:00etan, eta 19:30ean **XIII**.

Arosartze txapelketa. Gauean, 22:45ean, **X. Txarri txapelketa** eta ondoren **dantzaldia Iñigorekin**.

Igandean, eguerdiko 12:30ean **Meza Nagusia** izango da eta bertan Aretxabaletako Abesbatzak abestuko du. Jarraian **luntxa** egongo da eta jaiei amaiera emateko 13:30ean **XIV. Gimkana txapelketa** eta tantai botatzea.

KURTZEBARRI EGUNA

Goizeko 11:30ean **meza**. Ostean **salda, txanpana eta erromeria** trikitilariekin. Eguraldi txarra egingo balu Mendiolan ospatuko litzateke.

12
domeka



Hogei urte dira Iñigo Madinabeitiak Agorreko Andramaixetan hutsik egiten ez duela

**HAUR DANTZARIEN
EGUNA**

Eskoriatza, Bergara, Antzuola, Oñati, Soraluze, Arrasate eta Aretxabaletako dantza taldeak elkartu eta 450 haur inguruk **egun osoan zehar dantza saioak** eskainiko dituzte herriko kaleetan zehar. Haurrak goizeko 11:00etan lotuko dira Herriko plazan eta **alardea arratsaldeko 17:00etan** izango da, Herriko plazan hau ere.

IKASTAROAK

Okila Taldeak, hasiera mailako taila ikastaroa antolatu du. Eskolak urriaren 4an hasiko dira arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara eta 60 orduko iraupena izango du. Izena eman nahi duenak, Udalean, Kultur Etxean edota Okila Taldeak Murubide 5ean duen egoitzan egin dezake.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

Aldi bi

943 71 20 02

**T
X
I
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15

☎ 943 79 34 28 • Faxe: 943 79 34 28

ITURGINTZA



**URA, GASA ETA
KALEFAZIOA**

Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

KIROL ESKAINTZAK KIROLETXEAN

MANTENTZE GIMNASIA

Mantentze gimnasia 16 urtetik gorakoei zuzenduta. Jarduerak astean hirutan izango dira, goizez eta arratsalde. Abonatuak 2.150 pta ordaindu beharko dute eta gainontzekoak 3.800 pta.

3. ADINEKO GIMNASIA

Eskolak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira, goizeko 10:15tik 11:00era eta 11:00etik 11:45era. Abonatuak dohainik izango dute eta gainontzekoak 1.000 pta ordaindu beharko dute.

IGERIKETA

Hastapen eta hobekuntza ikastaroak izango dira. Egunak eta ordutegia taldearen arabera zehaztuko dira. Abonatuak 4.700 pta ordaindu beharko dute eta gainontzekoak 6.200 pta.

AQUAGYM

Astean hirutan. Abonatuak 2.100 ordainduko dute gainontzekoak 3.200.

ATZEGIKO GIMNASIA

Astean bitan izango dira saioak, 18:00etatik 18:45era. Abonatuak 2.000 pta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoak 3.200 pta.

AEROBIK-a

Hamalau urtetik gorakoentzat dago zuzenduta. Astean hirutan izango da, goizean eta arratsaldean. Taldeak gutxienez 20 pertsonakoak izan beharko dira eta gehien jota 35 lagunekoak. Abonatuak 2.800 pta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoak, aldiz, 3.800 pta.

GIMNASIA TERAPEUTIKOA

Astean birritan izango da. Abonatuak 2.400 pta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoak 3.600 pta.

KARATE

Sei urtetik gorakoentzat. Astean bi egunetan izango da. Abonatuak 2.500 pta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoak 3.500 pta.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

Andramaixak oroitzen



Eguakotxeko Atxabalta telebistako emanaldian Andramaixak izango ditugu. Aste honetan guztiz fin izan ditugu telebistako lankideak oportretatik bueltan Andramai-xetako bideoak editatzen eta dagoe-neko izan dugu beraien lanaren adibidea pasa den eguakotxean

eman zigituen bideoarekin. Aipatutako bideoan Andramaixetako zapatu eta domeka ikusi genituen bezala, gaurko astelehen eta martitzeneko egunak prestatu dizkigute telebistakoek. Bertan, bi egun hauek eman zutena ikusi ahal izango da, protagonista nagusienak gu guztiok izanik. Ez galdu, agian zu aterako zara eta.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



Uztailaren 31n itxi zen Burgales jatetxea. Josepa Errastik 49 urte eman ditu bertan sukaldari. Ia bere biziaren zati haundiena sukaldari eskaini dio Zari-mutzar honek, eta gezurra badirudi ere 88 urte ditu. Adin horrekin gutxiak dute Josepa bezain guapa eta sasoitsu egoteko zorfea.

• **Noiz zabaldu zen Burgales jatetxea?**

Gerra aurretik dago zabalik, ni neu eta familia 1950. urtetik aurrera hasi ginen bertan.

• **Nondik dator "Burgales" izena?**

Gizonaren aita Burgoskoa zen, aurreko

"Hemendik aurrera denbora nola pasatuko dudan beldurra daukat"

mendean hona etorritakoa eta hortik dator izena.

• **Zergatik itxiko da jatetxea?**

Obrak egin behar ditugu. Bestalde, nahiko nekatuta gaude eta alabak ere ez daude jarraitzeko animatuta.

• **Zer eskaini dizu Burgalesak urte luze hauetan?**

Dena, nire bizia eskaini diot sukaldari eta oso gustora aritu naiz.

• **Non ikasi zenuen sukaldari?**

Han eta hemen, etxean bertan, Donostian ere egon nintzen jatetxe batean eta hona ere etorri dira sukaldariak.

• **Zer behar du sukaldari on batek?**

Lanerako gogoia, ilusioa eta gustua.

• **Pertsonai ospetsurik pasatu da Burgalesenetik urte luze hauetan?**

Bai, asko, politikariak, kooperatibako fundatzaileak... baina guretzat bezero guztiak dira garrantzitsuak.

• **Aldaketa asko eman da zabaldu zenetik hona?**

Bai. Hasieran taberna ere bazen, baina hogeitertetik hona jatetxea bakarrik. Orain platerretan aukera gehiago dago, eta bestetik, lehen haragi gehiagoa jaten zen.

• **Anekdotarik izango duzu kontatzeko.**

Behin koadrila batek mahaia erre-

serbatu zuen hilabete batzuk lehenago. Guk hilabete lehenago apuntatu genuen, egun bera eta biak zapatuak baitziren. Eguna heldu zenean, beste batzuei lekurik ez dagoela esan behar izan genien eta azkenean entremes piloa gelditu zitzaigun sobra.

• **Sukaldari gustokoa?**

Zuberoa, Oiartzungoa da.

• **Zein izan da Burgaleseneko platerrik gustokoenetakoa?**

Hori bezeroek erantzun beharko dute baina nik uste dut, panacheak, fruituak, barazkiak... fama ona izan dutela.

• **Postrerik gustokoena?**

Arroz pudina.

• **Zer botako duzu faltan hemendik aurrera?**

Bezeroak.

• **Zer egingo duzu orain?**

Ez dakit, bildurra daukat denbora nola pasatuko dudan. Aktiba egotea nahi dut. Hori bai, pasiatzeko eta mezetara joateko denbora gehiago izango dut. Mezetara joatea asko gustatzen zait eta orain artean ez dut denbora gehiegi izan.

• **Bukatzeke Josepa, zerbaif gehitu nahi duzu?**

Urduri jartzen naiz galdera hauek erantzuterakoan. Egia esan, sukaldean ibiltzeko gehiago balio dut galdera hauek erantzuteko baino.

KOMIKIA

BALITZAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Express akeitegia

**Express
akeitegia**

zure gustoko giroa

Santa Kurtz, 16
☎ 943 79 23 43

Gurea taberna

**Jatetxea eta
taberna**

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA
• Panika espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA
☎ 943 79 68 57

Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345



*Bazkariak
eta afariak*

*Asteleheneretan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onenean**

Galartza auzoa
☎ 943 79 24 58
ARETXABALETA

Jose Mari bodegoia

**Eguneko
menua**

Nafarroa, 6
Tfnoa: 943 79 20 45
Aretxabaleta

**Jose Mari
bodegoia**

Amets taberna

AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29
Aretxabaleta

Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu harategia


Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 77 03 08

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

Urbaltz taberna



**URBALTZ
TABERNA**

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

sofa
leku

a, eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92